

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINТZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

52. astea (2025eko abenduaren 22tik 28ra)


Gripe-birusaren zirkulazioak beheranzko joera du gailur epidemikoa duela bi aste igaro ondoren. Bronkiolitisaren tasa aurreko asteko balioetan mantentzen da eta COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- *Aste honek jaiegun bat dauka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan.*
- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 355,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (528,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek behera egin dute aste honetan. COVID-19aren tasa baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 32 lagin jagoleen % 78,1 baieztatu da, 12 gripe-birus, 6 ABS eta SARS-CoV-2 bat detektatu direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 20,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (23,6/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA eta bronkiolitis (< 2 urte)-tasak intentsitate maila baxuetan mantentzen dira. Larrialdietako gripe-sindromeak, aldiz, beheranzko joera du eta intentsitate ertaineko mailan kokatzen da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemak, aste honetan, 630 gripe-birus, 370 ABS eta 11 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 355,7 kasukoa izan da (528,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 273,3/100.000 izan da Araban, 360,6/100.000 Bizkaian eta 386,1/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3281,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 urtekoen eta 64 urtetik gorenkoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1646,3 eta 394,4 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 171,7 kasukoa izan da (281,4/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI guztietan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 52. astea	Tasa 51. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	293,1	432,6	0,68 (0,62-0,74)
Arabar Errioxako ESI	585,9	934,0	0,63 (0,47-0,85)
Barakaldo-Sestaoko ESI	350,3	503,4	0,70 (0,62-0,78)
Barrualde-Galdakaoko ESI	418,7	550,1	0,76 (0,71-0,82)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	338,2	526,4	0,64 (0,60ç-0,69)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	354,7	521,9	0,68 (0,61-0,76)
Uribeko ESI	298,1	419,8	0,71 (0,64-0,78)
Bidasoako ESI	400,8	598,6	0,67 (0,58-0,77)
Debararrenako ESI	363,5	605,9	0,60 (0,52-0,70)
Debagoienako ESI	305,4	479,0	0,64 (0,53-0,76)
Donostialdeako ESI	353,4	556,9	0,63 (0,59-0,68)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	496,2	738,6	0,67 (0,60-0,75)
Tolosaldeako ESI	386,1	640,9	0,60 (0,52-0,70)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 30,4 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (58,5/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) ere behera egin du eta 519,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (884,0/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 0,5 kasutan mantentzen da (0,8/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 32 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 78,1 baieztatu dira. 12 gripe-birus (9 AH3 eta 3 AH1), 6 ABS eta SARS-CoV-2 bat atzeman dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 37,5ean (% 37,7 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 18,8raino igo da (% 11,5 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 3,1ekoa izan da (% 1,6 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	52. astea		51. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	12	37,5	23	37,7	300	38,2
SARS-CoV-2	1	3,1	1	1,6	11	1,4
ABS	6	18,8	7	11,5	35	4,5
Metaneumobirus	0	0,0	1	0,0	1	0,1
Parainfluenza	1	3,1	0	0,0	18	2,3
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	5	0,6
Errinobirus	3	9,4	5	8,2	160	20,4
Urtaroko CoV	2	6,3	2	3,3	24	3,1
Enterobirus	1	3,1	0	0,0	6	0,8

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 20,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (23,6/100.000 aurreko astean), 19,5/100.000 gizonetan eta 20,5/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 159,7 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 61,4 eta 20,1 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 5,3koa izan da 100.000 biztanleko (7,4/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 1,9koa 100.000 biztanleko (2,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,1 kasukoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 1,2koa izan da (% 1,0 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 33,8ra jaitsi da aste honetan (% 38,3 aurreko astean), eta ABSrena % 19,6koa izan da (% 18,3 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	52. astea		51. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	341	1,2	397	1,0	3575	2,5
Influenza	385	33,8	444	38,3	3426	33,6
ABS	342	19,6	387	18,3	3087	9,8

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbateteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zela. Aste honetako intentsitate maila, behaeranzko joera duena, maila ertainean kokatu da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gainditu zen eta aste honetan intentsitate baxuko mailan mantentzen da.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 630 gripe-birus, 370 ABS eta 11 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 630 gripe-birusetatik, 415 A motakoak izan dira, 148 A(H3) eta 67 A(H1)pdm09. 2025/40 astetik 6437 detekzio erregistratu dira, 6422 (% 99,8) A motakoak eta 15 (% 0,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3399 birusetatik, 2148 (% 63,2) A(H3) eta 1251 (% 36,8) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko urtarrilak 2

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza